

ORIXE, GAIA AGORTU ARTE (5 liburuki)

**Paulo Iztueta,
Etor argitaletxea, Donostia, 1992**

Bost ale trinkotan, (Orixeren sorkuntzazkoak (I); Itzulpenak (II); Artikuluak eta saiakerak (III); Orixe mendeurrena (1888-1988) (IV); Orixe eta bere garaia (V), 1992ko urte hastapenean (nahiz eta 1991ko data eraman), Etor argitaletxeak, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Turismo sailaren laguntzaz, Orixeren lan oro euskal publikoaren esku jarri du. Orainaz gero inork ez du aitzakirik bada (prezioarena izatekotan), Orixe ez dastatzeko. Zenbatek egingen du? Hori beste lelo bat da.

Guk geure aldetik, *Uztaroren* irakurlegoa, altxor kontsideratzen dugun horretan murgil dadin, horretarako animoz josi nahi dugu aurkezpen honekin. Hori egingen duena egindakoez ez dela damutuko aitzina dezakegarik. Paulo Iztuetak, argitalpen honen arduradun eta paratzaile nagusiak, *Egunkariari* esan zionez: "Orixek saiakeretan erabiltzen duen euskara oso kontutan hartu behar luke belaunaldi berriak; izan ere, euskarari kanpora nahiz barrura begira ohorea, omena eta indarra emango diona saiakerako hizkuntza

bait da, literatura adina behintzat. Hor erakutsi behar da prosa ona, hor neurtzen bait da luma ona zeinena den" (1992ko martxoaren 1ean). Bete-betean *Uztaroren* mundua ukitzen duen esaldi hau, guk gogoz azpimarratzeari, normala deritzot. Ni neu ere aspaldidanik konbentziturik bait nago euskararen berritzea literato eta filologoetatik adina behintzat giza eta gizarte-jakintzetan saiakeraz espresatzen direnetatik etorri datorrela. Honengatik ez dut egoki atxematen, euskal literatura aipatzen den bakoitzean, testu poetiko edo narratiboen azterketara bera mugatzen dutenen jokabidea. Batzuek horrela ikusten ez badute ere, (azken urteotan Euskal Herrian zehar egindako hainbat literatur batzarretan gertatua lekuko) ez bait da sekula santan gaur adina testu zientifiko edo zientzi dibulgaziozko euskaraz argitaratu. Halere, euskal saiakera munduan ezaguna den idazleatariko batek ere berriki bestelakorik aipatu du: hirurogeitamarreko urteetan bezala saiakerarik ez omen dela, alegia. Itsua izan behar da edo eta bere burua Euskal Herriatzen hartzen du. Eta

saiakeraren fenomeno hori euskararen aldare guzietan jasoaz errepresentatu beharko litzateke.

Bestalde, Orixeren obra mardul hori aipatuan aipaturik utziaz, okasio honetaz baliatzen naiz, P. Iztuetairen *Orixe eta bere garaia* (bilduma horretako bostgarren alea), eta bereziki 2. liburukia *Orixe eta gizarte-ingurua*, deitua, bereiztuz azpimarratzeko. Literatur soziologia lantzen den saio bat dugu. Euskal kultur idatzian guti besterik egin ez dena. Bere lerro nagusietan hara nola konposaturik dagoen: 1876ko urte madarikatutik hasi eta 1959ko urte itxaropentsura arteko euskal kultur mugimenduaren soziologia egiten da: 900 orrialde biribil eta oparotan ematen da.

Euskal gizartearen egoera XIX. mendean (Orixe sortu zeneko ataria) deskribatuz hasten da. Kontutan ukanez, garai hartan industrializazioa Bilbo inguruan kokatutako fenomeno bat izan zela, gainerako euskal gizartea ordezkatzeko zuten fenomenoak xeheki aztertuko ditu: mendia, lurra, baserria, herriska, euskara, usadio zaharrak, bizitza egonkorra, teokratismoa.. Nekazal gizartea. Horixe, XX. mende hasieratik aitzina, ordea, industrializazioa hedatuz doa Bizkaiko nekazal zonaldeetan eta Gipuzkoan, Araban eta Nafarroan, aldiz, txikia da

mugimendu ekonomikoa. Ondotik hezkuntzaren esparrura lotzen da: XIX. mendeko bigarren erdian eta XX. mendeko lehen bi hamarkadetan, ideologia kontserbadorearen eta liberalaren arteko gatazkari buruz ihardungo du klerikalismoaren eta antiklerikalismoaren artekoa, eskola publikoaren eta pribatuaren artekoa neurtuz. Intelektual eredu tipo bat sortzen dela pedagogia horien ondorioz esanen zaigu. Euskal nazionalismoari alde bietatik kupidagabeki erasotzen diote: eskuinetik eliz hierarkiak eta kontserbadoreek, integrismoarekin ezkontzen ez delako; ezkerretik, sozialismo eta komunismo estatalak, nazionalismoa burgeseriaren ondorio omen delako. Beste urrats batean, diktaduratik diktadurara II. errepublika pasata gaia taituzten da: estatutu-prozesua eta gerra zibila aztertzen dira. Horri loturik eliz instituzioen ekarpena euskal kulturaren alde batetik, eta kultur plataforma laikoaren sorrera bestetik aipatuko zaizkigu. Literatur erizpideez luze eta zabal dihardu. Frankismoaren ezarpenak guzti hori zapuztu zuen, eta horren ondorio euskararen aldeko kultur ekintzak Ipar Euskal Herrian hasten direneko aroa da aztergaia. Finean heldu zitekeen onena heldu zen: kultur etenduraren bidegurutzean "Euskal Herriak resurrexit kantatu zuen" esaten zaigu. Alternatiba abertzale

berri bat bideratzen da: nazionalismo historikoak bere politikagintza Espainiako bloke demokratikoaren barruan kokatuz segituko duen bitartean, abertzaletasun iraultzaileak nola eredu espainolarekiko hala frantsesarekiko etena bultzatuko du.

Hari horri jarraiki bizi gara. Noiz arte?

Guzti hori euskara eredugarriaz agertzen zaigu. Gaiak interesik badu, euskaragatik duenarekin bikoizturik dager.

Jokin Apalategi